

INGENIARITZA ELEKTRIKOA. ORAINA ETA ETORKIZUNA

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua:** Ingeniaritza Elektrikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa plaza 1. Donostia (Gipuzkoa)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Proiektu honen helburua industria ingeniartzan interesatuta dauden Batxilergoko eta Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetako ikasleengana gerturatzea da. Ingeniaritza Elektrikoko graduari buruzko azalpenak emango zaizkie, graduaren ikasketa-planaren ezaugarriak jakinarazteaz gain, etorkizuneko erronkak ezagutaraziz (sorkuntza banandua, ibilgailu elektrikoa, energia berriztagarriak, metaketa sistemak, etab.), bai eta ikasketak amaitu ondoren izango dituzten lan-irteera profesionaleri buruzko informazioa ere.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Ingeniaritza Elektrikoko gradua: ikasketa-plana, praktikak eta laborategiak.
- Ingeniaritza Elektrikoaren etorkizuneko erronkak.
- Lan-irteerak/irteera profesionalak.
- Eskolaren harremanak lan-eremuarekin: bisitak ikasketetan zehar, inguruko enpresetan borondatezko praktikak eta Graduaren Amaierako Lana egiteko aukera.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

- Ikasketa-planaren eta titulazioaren lan-irteeren aurkezpena.
- Ingeniaritza Elektrikoko graduko ikasle-ohi edo/eta ikasle batekin taldeko elkarriketa egingo da, bere ikasketa-bizikizunak eta laneko esperientzia azalduko dituelarik.
- Laborategiak erakutsiko zaizkie eta zenbait jarduera praktiko egiteko aukera emango zaie.
- Irakasgai batzuen eta gradu amaierako lanen adibide praktikoak erakutsiko dira.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

| Data | Hizkuntza | Txanda | Ordua | Plazak |
|-------------|------------------|---------------|--------------|---------------|
| 2026-01-26 | Euskara | Goizez | 11:00-13:00 | 16 |
| 2026-01-26 | Gaztelania | Goizez | 11:00-13:00 | 16 |
| 2026-01-26 | Euskara | Arratsaldez | 15:00-17:00 | 16 |
| 2026-01-26 | Gaztelania | Arratsaldez | 15:00-17:00 | 16 |